



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urtarrilaren 31

15. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00007. Foru Lege proiektua, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzkoa (2. or.).
- 10-22/LEY-00015. Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremani buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-23/ITP-00003. Interpelazioa, osasun publikoaren arloan sakontzeko eta hobetzeko politika orokorrari buruzkoa, herritarren beharrei erantzuteko eta osasun-profesionalei babesa emateko. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztu du (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 10-23/POR-00045. Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeek sinatutako Baxilergo-itunetan indarreko legeria urratu zela-eta abiatutako administrazio-prozedurari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (9. or.).
- 10-23/POR-00046. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak Corella, Cintruénigo eta Fitero Iruñearekin zuzenean lotzen dituen autobus-linea kentzeko erabakiari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (10. or.).
- 10-23/POR-00047. Galdera, Nafarroako etxez etxeko errehabilitazioaren proiektuaren ezarpenari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00048. Galdera, osasun etxeetako erizaintza pediatrikoari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (11. or.).
- 10-23/POR-00049. Galdera, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legeak arte eszeniko eta musikaletarako jasotzen duen zerga-arinketari buruzkoa. Carlos Mena Blasco jaunak egin du (12. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 2022. urtean zehar foru parlamentariak jasotako ordainsariak (13. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00007. Foru Lege proiektua, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Gobernuak, 2022ko ekainaren 29an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura. Hari buruz, Kontuen Ganberak txosten bat eman du, 2023ko urtarrilaren 3ko 1. Nafarroako Parlamentuko Aldikari Ofizialean argitaratua.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 157. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua Legebiltzarraren Osoko Bilkuran irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proiektua, Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzkoa

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Diputazioari dagokio Aurrekontu Orokorrek prestatu eta Kontuak formalizatzea Parlamentuan aurkezteko, bertan eztabaidatu, zuzendu eta, hala erabakiz gero, onets daitezzen. Hori guztia, foru legeetan ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 123. artikulua Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren esku uzten du Nafarroako Kontu Orokorren formulazioa. Horiek, behin Nafarroako Gobernuak onetsitakoan, Nafarroako Parlamentura behar dira igorri dagokion foru legearen proiektuaren bidez, aipatutako foru legearen 130. artikuluan ezarri bezala.

Nafarroako Gobernuak eginak ditu 2021eko ekitaldiko Kontu Orokorrei buruz adierazitako tramiteak, Kontuen Ganberak emana du behar den irizpena eta tramitatua dago Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 157. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Bidezko da, beraz, foru lege hori onestea.

Artikulu bakarra. Onesten dira Nafarroako 2021eko Kontu Orokorrek, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak formulatu eta Nafarroako Gobernuak onetsiak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 130. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontu Orokorren edukia Nafarroako Atarian ematen da

10-22/LEY-00015. Foru Lege proiektua, kanpoko nafar herritarrekiko harremanei buruzkoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezkeen kanpoko nafar herritarrekiko harremanei buruzko Foru Lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Proiektu hori 2022ko azaroaren 11ko 129. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

2. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. artikulua. Aplikazio eremu subjektiboa. Kanpoko nafar herritarrak eta kanpoko nafar kolektibitateak.

Foru Lege hau honako hauei zaie aplikatzen:

1. Kanpoko nafar herritarrak, Foru Lege honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kanpoan dauden nafarrak direnak; horien artean sartzen dira honako hauek:

a) Nafarroako forudunaren izaera zibila edukirik, Foru Komunitatetik kanpo bizi direnak, bai Espainian, bai atzerrian.

b) Espainiako herritarrak, Espainian izandako azkeneko errolatzea Nafarroako udalerrri batean izan dutenak e) Aipatutako pertsona horietako bakoitzaren ahaideak, hau da, legez bananduta ez dagoen ezkontidea edo berarekin ezkontzaren pareko lotura duen bikotekidea, bai eta ondorengoak ere, dagokion kontsulatuan espainiar gisa inskribatuta daudenak.

2. Beren herritartasun pertsonala edozein dela ere, familiarekin, historiarekin, egoitzarekin edo beste zerbaitekin lotutako baldintzak direla-eta Nafarroari lotuta sentitzen diren eta foru-lege honetan araututako kanpoko nafar kolektibitateen elkarterean bateko bazkide diren pertsonak”.

Zioak: Nafar herritarren definizioa bat etor dadila Foruaren Hobekuntzan nafar kontzeptuari

ematen zaion definizio politikoarekin. Zorrozki “herritar”-tzat jo ditzakegunak eta Nafarroarekin bestelako loturak dituztenak bereiztea.

2. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Aplikazio-eremu subjektiboa izeneko 2. artikulua 1. apartatuaren d) letra aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“d) Aipatutako pertsona horien ahaideak; hau da, legez bananduta ez dagoen ezkontidea edo ezkontzaren pareko lotura bitarteko bikotekidea, bai eta horien ondorengoak ere”.

Zioak: Legearen eremu subjektiboa ahaide ondorengo guztienganaino hedatzea proposatzen da.

3. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

3. artikulua a) apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“a) Kanpoko nafar herritarrak: honako baldintza hauetako bat betetzen duten herritar espainiarrak:

i) Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo bizi diren baina auzotasun administratiboa Nafarroako udalerrri batean dutenak.

ii) Azken auzotasun administratiboa Nafarroako udalerrri batean izan dutenak.

iii) Horien ondorengoak, atzerrian bizi direnak, baina espainiar gisa inskribatuta daudenak, baldin eta hala eskatzen badute”.

Zioak: Nafar herritarren definizioa bat etor dadila Foruaren Hobekuntzan nafar kontzeptuari ematen zaion definizio politikoarekin. Bestela, eskubide politikorik gabeko herritar nafarrak sortzen ariko ginateke.

4. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Definizioak izeneko 3. artikuluari apartatu berri bat, e) apartatua, gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“e) Kanpoko nafar komunitate birtualak: Nafarroarekin lotura izaten jarraitzeko xedez informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin bat sortutako sareak , foru lege honen xedek lortzera bideratuak, eta legean xedatutakoarekin bat aitortuak direnak”.

Zioak: Kanpoko nafar komunitate birtualak sartzten dira, kanpoan bizi diren nafarrek gaur egun duten antolaketa-errealitatearekin bat. Azken urteotan, eta informazioaren gizartearen bilakaeraren ondorioz, komunitateak sortzeko eta antolatzeko modu berriak agertu dira, interes edo helburu jakin batzuen inguruan zibernetikoki antolatutako banakoen eta erakundeen taldeen bidezkoak, eta horien elkarreraginak, loturak, harremanak eta komunikazioak sarean gertatzen dira.

5. ZUZENKETA**EH BILDU NAFARROA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Printzipio orokorrak izeneko 4. artikularen 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. Nafarroako Foru Komunitateak uste du kanpoko nafar komunitateak eta kanpoko nafar komunitate birtualak aktibo bat direla Nafarroako ondasun komunarentzat, paper garrantzizkoa jokatzen baitute Nafarroako Foru Komunitatearen kanporanzko proiektioan eta Nafarroaren nortasun-ezaugarriak ezagutarazteko lanean, eta dinamizatzaileak direlako Foru Komunitateak kanpoko komunitate horiek kokatuta dauden autonomia erkidegoekin eta herrialdeekin dituen harreman kultural, sozial eta ekonomikoetan. Hori horrela, solaskide nagusitzat hartuko dira kanpoan bizi diren nafar herritarrei buruzko gaietan”.

Zioak: Kanpoko nafar komunitate birtualak gehitzen dira. Gobernuak laguntza eta aitortpena eman behar die, nafar komunitate tradizionalak gain, nafar komunitate birtualei.

6. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

4.2 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Nafarroako Foru Komunitateak uste du kanpoko nafar komunitateak aktibo bat direla Nafarroako ondasun komunarentzat, paper garrantzizkoa jokatzen baitute Nafarroako Foru Komunitatearen kanpoko proiektioan eta Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak zabaltzeko lanean, eta eragile dinamizatzaileak direlako Foru Komunitateak autonomia-erkidegoekin eta komunitate horiek kokatuta dauden herrialdeekin dituen harreman kultural, sozial eta ekonomikoetan”.

Zioak: Baliogabetzea jatorrizko idazketan kanpoko nafar komunitateei ematen zitzaienten kanpoan bizi diren nafar herritarrei buruzko gaietarako solaskide nagusiaren izaera. Elkarre horietako kideak Foru Komunitateetik kanpo bizi diren eta boto-eskubidea duten 25.000 inguru nafarren guxtiengo txiki bat dira.

7. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6.1.c artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“c) Nafarroako kultura, hizkuntzak eta historia Nafarroan bizi diren herritarren baldintza beretan ezagutu eta ikasi ahal izateko eskubidea. Horretarako, eta bere aurrekontu-baliabideen barruan, Nafarroako Gobernuak behar diren bitartekoak jarriko ditu eskubide hori gauzatu ahal izateko jarduerak antolatzeko”.

Zioak: Esplizituki adieraztea, 6.1.a eta 6.1.b artikuluetan egiten den eran, ezagutza izateko eta ikasteko eskubide hori Nafarroan bizi diren herritarrek izaten dituzten baldintza beretan egikarituko dela.

8. ZUZENKETA**NAVARRA SUMA****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

6.1.d artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren aldetik entzunak izateko eskubidea, Nafa-

rroan bizi diren herritarrek izaten dituzten baldintza beretan eta bide beretatik”.

Zioak: Kentzea proposatzen dugun puntuan esaten da 2.1 artikuluan aipatutako nafarrek honako eskubide hau dutela: “d) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak entzun diezaien eskubidea, foru lege honek arautzen duen Kanpoko Nafar Komunitateen Kontseiluaren bidez”. Era berean, 11.4 artikulua honako hau dio: “4. Nafar Komunitateen Kontseiluaren osaera, antolaketa eta eginkizunak erregelamenduz zehaztuko dira foru dekretu baten bidez. Zer departamenturi dagoen atxikia, departamentu horretako titularraren izanena da kontseiluburua. Kideak, hauek izanen dira: a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkariak. b) Kanpoko nafar komunitateen ordezkariak, erregelamenduz zehazten den moduan aukeratuak eta parekotasun-printzipioa aintzat hartuta”.

“Kanpoko nafar komunitate” direlako horiek ez daudenez sartuta 2.1 artikuluan, ez du zentzurik kanpoan bizi diren nafarrek Foru Administrazioaren aldetik entzunak izateko duten eskubidea haiek beraiek osatutako Kontseiluaren bidez egikaritzeak. Kanpoko nafarren elkarrekin, oso begiko baditugu ere, beren bazkideak bakarrik ordezkatzeko dituzte, eta ez da haien xedea izaten munduan zehar bizi diren 25.000tik gora nafar herritarren iritziei eta beharrei bide ematea.

9. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7. artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“7. artikulua. Itzulera eta Nafarroarako immigrazioa.

1. Foru lege honen ondorioetarako, itzulera izanena da Nafarroatik kanpora joan diren eta bizilekua Espainiatik kanpo ezarri duten nafar herritarrek Nafarroako Foru Komunitatera itzultzea, bertan beren egoitza iraunkorra ezartzeko asmoz. Nafarroarako immigraziozat jotzen da 2.1 artikuluan jasota dauden eta aurrez Nafarroan bizi izan ez diren nafar herritarrek Foru Komunitatera etortzea, bertan beren egoitza iraunkorra ezartzeko asmoz”.

Zioak: Nafarroan inoiz bizi izan ez diren pertsonen etorrerari “itzulera” ez esatea, zentzugabea baita.

10. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

7.3 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“3. Itzuli diren edo itzultzeko prozesuan dauden nafarrei honako eskubide hauek aitortzen zaizkie, aurreko artikuluan ezarritako eskubideez gain:

a) Itzultzeko aukeren berri izateko eskubidea eta Nafarroako Gobernuak horretarako eskaintzen dituen zerbitzuen aholkularitza jasotzekoa. Horretarako, Nafarroako Gobernuak berariazko neurriak hartuko ditu borondatezko itzulera errazteko eta itzuli direnen gizartratzea bultzatzeko.

b) Hezkuntza-konpentsazioko planak eskuratzeko eskubidea, itzuleraren ondorioz hezkuntzan gerta daitezkeen desberdintasun egoerei aurrea hartzeko. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko titulu eta ikasketa ofizialei dagokien herrialdeko unibertsitateko eta unibertsitateaz kanpoko titulu eta ikasketa ofizialak homologatzeko aukerari buruzko aholkularitza jasotzeko eskubidea dute, indarrean dagoen araudiaren arabera.

c) Nafarroako Gobernuak etxebizitza babestuztat jotzen dituen babes ofizialeko etxebizitzetara sarbidea edukitzeko eskubidea, gaiari buruzko araudi espezifikoak ezartzen dituen baldintzekin, Nafarroara itzuliz gero”.

11. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Itzulera izeneko 7. artikulua 3. apartatuari d) letra gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“d) Informazio soziolaboraleko ekintzetan eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren programetan parte hartzeko aukera izatea”.

Zioak: Apartatu berri bat gehitzen da, Nafarroa-Lansare Nafarroako Enplegu Zerbitzuak antolatutako programetan parte hartzeko aukera izateko eskubidea aitortzeko, laneratzen laguntze aldera.

12. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8.7.c artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“c) Nafarroari buruzko funts editoriala eta ikus-entzunezkoa izateko eskubidea, Nafarroako historia, hizkuntzak, kultura, turismoa, kultur ondarea eta gizarte errealitatea ezagutzeko”.

Zioak: Gaztelaniazko testuan zegoen errata zuzentzea.

13. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8.8.b artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“b) Beren lurralde-eremuko nafarrak, botoa emateko eskubidea daukatenak, Nafarroan egiten diren hauteskunde-prozesuetan parte hartzera animatzea”.

Zioak: Artikuluan aipatzen diren zentroek ez dute esperientziarik horrelako hauteskunde-prozesuetan, eta, ezagutza faltagatik, jardunbide okerak egiten ahalko lituzkete. Gainera, hauteskunde-prozesuetan laguntzea ez da haien jatorrizko xedeetako bat, eta, gainera, espainiar kon-sulatuen lanarekin talka egiten ahalko lukete.

14. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kanpoko nafar komunitateen betebeharrak arautzen dituen 8. artikulua 8. apartatuari i) letra berri bat gehitzeko zuzenketa.

“i) Ondare dokumentala, immateriala eta higigarria inbentariatzea, hura aitortzeko, zaintzeko eta ezagutarazteko”.

Zioak: Ondare kulturala, materiala eta immateriala zaintzeko eta inbentariatzeko betebeharrak ezartzen da, nafar diasporaren memoria historikoa berreskuratzen eta mantentzen laguntzeko.

15. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

8. artikuluari hamaikagarren puntua gehitzeko zuzenketa. Hona testua:

“11. Artikulu honetan aipatzen diren betebeharrak ez betetzeak ekar dezake Foru Lege honek kanpoko nafar komunitateentzat ezartzen dituen eskubideak bertan behera geratzea”.

Zioak: Lehen adierazitako betebeharrak bete-tzen ez diren kasuetarako nolabaiteko zigorren bat ezartzeko beharra.

16. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizia-la izeneko 10. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“2. Kanpoko Nafar Komunitateen Erregistro Ofizialean ofizioz inskribatuak izanen dira Nafarroako Gobernuak aitortzen dituen kanpoko nafar komunitateak, federazioak eta nafar komunitate birtualak, foru lege honek ezartzen duenari jarraikiz”.

Zioak: Kanpoko nafar komunitate birtualak inskribatzeko betebeharrak gehitzen da.

17. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

11.6 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“6. Nafarroako Komunitateen Kontseiluak urtean behin eginen du ohiko osoko bilkura; eta ezohiko bilkura, kontseiluburuak egoki irizten dionean, eta, nolahi ere, kideen herenak hala eskatzen duenean. Telematikoki parte hartzen ahalko da bilkuretan, kideek hala eskatuz gero”.

Zioak: Joan-etorriengatik dietarik ez denez aurreikusten, Kontseiluko kideen parte-hartzea erraztea.

18. ZUZENKETA

EH BILDU NAFARROA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Nafar Komunitateen Kontseilua izeneko 11. artikulua 4. apartatuari c) letra berri bat gehitzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“c) Nafarroako Parlamentuaren ordezkariak, erregelamendu bidez zehaztuko den moduan aukeratuak”.

Zioak: Nafar Komunitateen Kontseiluan Nafarroako Parlamentuaren ordezkari bat gehitu da, harremana erraztearren kanpoko nafar komunitate

teen eta haien erakundeen artean, Nafarroako Parlamentua barne.

19. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

12.1 artikulua aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“1. Nafarroako Gobernuak lankidetzarako mekanismoak ezarri ahal izanen ditu Espainiako Gobernuarekin, nafarrak edo nafar jatorria duten pertsonak bizi diren beste estatuekin nazioarteko hitzarmenak edo itunak egiteko, Nafarroarekin duten lotura gal ez dezaten edo loturak indarra gal ez dezan, eta, hala badagokio, itzultzeko edo Nafarroara immigratzeko erraztasunak emate aldera”.

Zioak: Jatorrizko idazketan ageri den “itzultzeko eskubidea”-ren aipamena kentzea, ez baita jaso ez 6. artikuluan ez 7.ean.

20. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Legearen izenburua aldatzeko zuzenketa.

Legearen izenburua aldatu eta honako hau jar-tzea proposatzen da: “Foru Lege proiektua, kan-poko nafar herritarrekiko eta nafar kolektibitateeki-ko harremanei buruzkoa”.

Zioak: Foru Lege proiektuan, bigarren artiku-luan dago zehaztuta zer esan nahi den “kanpoko nafar herritarrak” dioenean. Hor ematen den defi-

nizioari jarraikiz, herritar espainiarrak zein baldin-tza hori betetzen ez duten beste pertsona batzuk sartzen dira kontzeptu horretan, nahiz eta beste herrialde batzuetako herritarrak izan. Hori horrela, herritartasun kontzeptuaren erabilera desegokia egiten da, baldintza politiko jakin bat betetzen dutenei gorde behar baitzaie hura ikuspegi juridi-kotik. Horrek eragiten ahal dituen nahasteak ekidi-te aldera, izenburua aldatzea proposatzen dugu, ongi bereizteko zorrozki “nafar herritar”-tzat jotzen ahal diren pertsonak eta, horiekin batera, eta nahiz eta herritartasunik ez izan, kanpoko nafar kolektibitateetako kide direnak. Aldaketa hori, gai-nera, koherentea izanen litzateke proiektuaren lehenengo artikuluekin, hor adierazten baita honako hau dela legearen xedea: “arauak ematea Nafarroako Foru Komunitateak eta haren gizarte zibilak eta instituzioek kanpoko nafar herritarrekin –Espainiako gainerako leketan zein atzerrian bizi direnak– eta kanpoko nafar komunitateekin dituz-ten harremanak sendotu, sustatu eta koordina-tzeko”.

21. ZUZENKETA

NAVARRA SUMA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Zioen azalpeneko 12. lerrokada aldatzeko zuzenketa. Honela geldituko litzateke testua:

“Beraz, foru lege honen helburua da harreman instituzionalak sendotzea kanpoan bizi diren nafar herritar eta kolektibitateekin”.

Zioak: Esplizituki adieraztea foru legeak erreferentzia egiten diela nafar herritarrei eta kan-poko nafar kolektibitateetako kide diren gainerako pertsoneri.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-23/ITP-00003. Interpelazioa, osasun publikoaren arloan sakontzeko eta hobetzeko politika orokorrari buruzkoa, herritarren beharrei erantzuteko eta osasun-profesionalei babesa emateko.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkezturiko interpelazioa, osasun publikoaren arloan sakontzeko eta hobetzeko politika orokorrari buruzkoa, herritarren beharrei erantzuteko eta osasun-profesionalei babesa emateko.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapide-tzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Osasun publikoaren arloan sakontzeko eta hobetzeko politika orokorrari buruzko interpelazioa, herritarren beharrei erantzuteko eta osasun-profesionalei babesa emateko.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

F saila:
GALDERAK

10-23/POR-00045. Galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeek sinatutako Batxilergo-itunetan indarreko legeria urratu zela-eta abiatutako administrazio-prozedurari buruzkoa.**BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeek sinatutako Batxilergo-itunetan indarreko legeria urratu zela-eta abiatutako administrazio-prozedurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2021-2022ko ikasturtean, ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten Nafarroako ikastetxeek berri egin zituzten Lehen Hezkuntzako itunak, sei urteko epealdirako. Ikastetxe horiek lehenengo mailako ikasgelak bakarrik bihurtu zituzten misto, eta gogor heldu zioten 17/2012 Foru Legeak nahitaezko etapetarako ematen zuen aukerari, moldaketa pixkanaka egitekoari, eta Nafarroako Gobernuak hori onartu egin zuen.

Baina 2022-23ko ikasturte honetarako, Batxilergoko itunak ere berri dira, oinarri hartuta 489/2021 Ebazpena, abenduaren 28koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ezartzen baita hezkuntza itunen araubidea aplikatzeko prozedura 2022-2023ko eta

2025-2026ko ikasturteen arteko aldirako, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Batxilergoko etapetarako. Sinatutako akordioaren oinarrietan, ikastetxeek indarreko legeak onartzen zituzten, baina ikastetxe horiek hezkuntza bereiziari eutsi diote Batxilergoan.

Irailan, ikasturtearen hasierarekin, Hezkuntza Ikuskaritzak egiaztatu zuen legea urratzen ari zirela, eta kontseilariak adierazi zuen horrek Batxilergoko itunak azkentzea ekar zezakeela. Irailaren 12an, esan zuen "laster" Ikuskaritzaren aktak bidaliko zizkietela ikastetxeei, alegazioak egin ahal izan zituzten, "prozedura administratibo bat abiatuz, segurtasun juridiko osoz, zeinak itunak azkentzeko bidea eman lezakeen".

Joan den urriaren 6an, Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinetan, besteak beste, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentua premiatzen zuen "amaiera eman diezaion, ahalik eta azkarren, araudi-uraketako administrazio-prozedurari, behar diren neurriak hartuz hezkidetzaren bermatzeko edo, kasua bada, finantziarioa ikasturte honetan bertan galtzeko, kontuan hartuz itun horiek ezin direla inolaz ere luzatu 17/2012 Foru Legean oinarrituta, zeinak aukera hori derrigorrezko etapetarako baizik ez baitu ematen".

Jada 2023an gaude, eta ikasturtea amaitzeko hilabete gutxi batzuk geratzen diren honetan, oraindik ez dugu administrazio-prozeduraren ebazpenari buruzko inolako berririk. Hori horrela, honako galdera hau egiten dugu:

Zer egoeratan dago ikasleak sexuaren arabera bereizten dituzten ikastetxeek sinatutako Batxilergo-itunetan indarreko legeria urratu zela-eta abiatutako administrazio-prozedura, zeinaren ebazpenak, Hezkuntzako kontseilariak esan zenez, itunak azkentzea ekar lezakeen?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

10-23/POR-00046. Galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak Corella, Cintruénigo eta Fitero Iruñearekin zuzenean lotzen dituen autobus-linea kentzeko erabakiari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Lurralde Kohesiorako Departamentuak Corella, Cintruénigo eta Fitero Iruñearekin zuzenean lotzen dituen autobus-linea kentzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Lurralde Kohesiorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan :

Zergatik erabaki du Departamentuak Corella, Cintruénigo eta Fitero Iruñearekin lotzen dituen zuzeneko autobus-linea kentzea?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

10-23/POR-00047. Galdera, Nafarroako etxez etxeko errehabilitazioaren proiektuaren ezarpenari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako etxez etxeko errehabilitazioaren proiektuaren ezarpenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroak munduko bizi-itxaropenik altuenetako bat du; hortaz, gero eta herritar adintsuagoak ditugu. Hori dela-eta, mendekotasuna duten gero eta pertsona gehiago daude, eta horrek beharrezko egiten du gaixo zaurgarriek zaintza guztiak haien etxeetan jasotzea, errehabilitazioa barne.

Nola ari da ezartzen Nafarroako etxez etxeko errehabilitazioaren proiektua?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-23/POR-00048. Galdera, osasun etxeetako erizaintza pediatrikoari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, osasun etxeetako erizaintza pediatrikoari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Erizaintza pediatrikoaren lanbideak eginkizun nagusizat du hurrei oinarrizko osasun-laguntza ematea, jaiotzen direnetik nerabezarora arte.

Nafarroako Foru Komunitateko osasun etxeetan, zein da erizaintza pediatrikoaren garrantzia eta zer balio-ekarpen ari da egiten?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

10-23/POR-00049. Galdera, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legeak arte eszeniko eta musikaletarako jasotzen duen zerga-arinketari buruzkoa.

CARLOS MENA BLASCO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Mena Blasco jaunak aurkeztutako galdera, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legeak arte eszeniko eta musikaletarako jasotzen duen zerga-arinketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Carlos Mena Blasco jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Kultura eta Kiroleko kontseilariak Kultura eta Kiroleko Batzordearen hurrengo bilkuran ahoz erantzun dezan:

Pasa den abenduaren 23an onetsi zen Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 36/2022 Foru Legea, eta bertan zerga-arinketa bat jasotzen da gure erkidegoko arte eszeniko eta musikaletarako.

Zer balorazio egiten du Kultura eta Kirol Departamentuak neurri horiei buruz?

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 26an

Foru parlamentaria: Carlos Mena Blasco

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2022. urtean zehar foru parlamentariak jasotako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urtarrilaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2023ko urtarrilaren 23ko Mahaiko Erabakiaren bidez agindu zen 2022. urtean zehar foru parlamentariak jasotako ordainsarien zerrenda argitara zedin, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15.4 artikularekin bat.

Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jakinarazi du aipatu zerrenda argitaratu

baino lehenago kilometro-ordainen kopurua aldatzeko eskaera bat jaso zela, eta zenbateko zuzena ordaindu dela.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 37. artikularekin bat, agintzen da behin betiko zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgunean argitara dadin.

Iruñean, 2023ko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Izen-abizenak	Ondainsari finkoa	Berlaratzearen truke jasotako ordainsariak	Kilometro-ordaina	Gauzakko ordainsaria	Guztira
AGUIRRE OVIEDO, JORGE	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
ÁLVAREZ ALONSO, MARTA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
ALZÓRRIZ GOÑI, RAMÓN	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
ANSA ASCUNCE, ANA ISABEL	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
ANSA ECHEGARAY, ÁNGEL	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
ARAIZ FLAMARIQUE, ADOLFO	56.008,26	-	3.180,80	322,68	59.511,74
ARAKAMA URTIAGA, JAVIER	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
ARANBURU BERGUA, ISABEL	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
ASIAIN TORRES, MIKEL	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
AZCONA MOLINET, PABLO	56.008,26	-	3.991,68	322,68	60.322,62
AZNAL SAGASTI, LAURA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
AZNÁREZ IGARZA, AINHOA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
BARCOS BERRUEZO, UXUE	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
BIURRUN URPEGUI, M ^a ARÁNZAZU	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
BONILLA ZAFRA, ALBERTO	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
BUIL GARCÍA, MIKEL	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
BUJANDA CIRAUQUI, MIGUEL	42.006,16	-	3.269,12	322,68	45.597,96
DE SIMÓN CABALLERO, MARISA	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
ESPARZA ABAURREA, JOSÉ JAVIER	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
ESPARZA GARRIDO, JORGE	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
FANLO MATEO, PATRICIA	-	21.674,12	-	322,68	21.996,80
GARBAYO BERDONCES, RAQUEL	56.008,26	-	7.222,40	322,68	63.553,34
GARCÍA JIMÉNEZ, JAVIER	56.008,26	-	6.905,60	322,68	63.236,54

Izen-abizenak	Ondainsari finkoa	Bertaratzearen truke jasotako ordainsariak	Kilometro-ordaina	Gauzako ordainsaria	Guztira
GARCÍA MALO, M ^a ISABEL	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
GONZÁLEZ FELIPE, PEDRO JOSÉ	56.008,26	-	5.895,68	322,68	62.226,62
GONZÁLEZ MARTÍNEZ, DOMINGO	56.008,26	-	6.419,84	322,68	62.750,78
HUALDE IGLESIAS, UNAI	76.632,22	-	-	322,68	76.954,90
IBÁÑEZ PÉREZ, M ^a YOLANDA	63.010,92	-	6.747,52	322,68	70.081,12
IBARROLA GUILLÉN, M ^a CRISTINA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
IRIARTE LÓPEZ, IÑAKI	-	29.919,08	-	322,68	30.241,76
IZURDIAGA OSINAGA, ARANZAZU	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
JURÍO MACAYA, INMACULADA	63.010,92	-	3.748,48	322,68	67.082,08
LECUMBERRI URABAYEN, JAVIER	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
LLORENTE TRUJILLO, M ^a ELENA	-	26.405,14	364,80	322,68	27.092,62
MAGDALENO ALEGRÍA, VIRGINIA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
MEDINA SANTOS, NURIA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
MENA BLASCO, CARLOS	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
OLAVE BALLARENA, M ^a ISABEL	56.008,26	-	4.229,44	322,68	60.560,38
PERALES HURTADO, PATRICIA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
PÉREZ ARREGUI, FRANCISCO	56.008,26	-	1.629,44	322,68	57.960,38
PÉREZ-NIEVAS LÓPEZ DE GOICOECHEA, CARLOS	56.008,26	-	6.316,80	322,68	62.647,74
RAMÍREZ ERRO, MAIORGA	63.010,92	-	3.738,88	322,68	67.072,48
REGÚLEZ ÁLVAREZ, BLANCA ISABEL	56.008,26	-	3.547,20	322,68	59.878,14
RUIZ JASO, BAKARTXO	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA, JUAN LUIS	63.010,92	-	-	322,68	63.333,60
SOLANA ARANA, M ^a RONCESVALLES	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
SUÁREZ BENITO, JOSÉ	56.008,26	-	6.557,44	322,68	62.888,38
UNZU GARATE, AINHOA	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
VALDEMOROS ERRO, M ^a JESÚS	56.008,26	-	-	322,68	56.330,94
GUZTIRA	2.653.028,42	77.998,34	73.765,12	15.811,32	2.820.603,20

